

## **LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA**

---

Txosten hau berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eskatuta landu da, bat etorrita Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen 19 artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumenarekin.

Txostenaren helburua da egiaztatzea behar bezala aplikatzen direla bai Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 19. artikulua, bai, halaber, Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak —zeinak Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Akordioaren bidez onetsi baitziren—, eta, horrekin batera, hobekuntza-proposamenak egitea.

Eskatutako txostenaren aztergaia den lege-aurreproiektuaren helburua da EAEko administrazio publikoek lankidetzaren eta elkartasun-arloetan dituzten politiken araubide juridikoa ezartzea eta arautzea.

Beraz, xedapen arautzaile orokorra da, eta generoaren arabera zer inpaktu duen ebaluatu behar da, lehenengo jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz. Horri begira, generoaren araberako inpaktuari buruzko txostena eman du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoaren arabera.

Bidalitako inpaktuari buruzko txostenean lege-aurreproiektuaren deskribapen orokorra egiten da modu zehatz eta zuzenean. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuei dagokienez, txostenak hau adierazten du: *«Genero-berdintasuna beti izan eta izango da lankidetzaren politikaren zeharkako ildoetako bat, zeinak estrategia bikoitza baliatzen baitu: genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna eta emakumearen ahalduzaren bultzada»*.



Era berean, hau adierazten du: « *lankidetzaren eta elkartasunerako EAEko politika publikoaren helburuen artean dago desberdintasunen kontrako borroka, baita giza eskubideen nazioarteko esparruan genero-justiziaren sustapena ere, besteak beste.*

*Eta berdintasuna eta genero, genero-identitate eta/edo sexu-orientazioagatiko diskriminaziorik eza dira politikaren printzipioetako batzuk, eta ikuspegi feminista lankidetzarako jarduketan lehentasunezko ikuspegia izango da».*

4/2005 Legean xedatutako izapide formalak eta generoaren araberrako inaktuaren txostena egiteko jarraibideak bete direla egiaztatu ondoren, edukiari buruz esan nahi genuke balorazio positiboa egiten dugula apartatuak eta galdetegiak betetzeko egindako ahaleginari dagokionez, egoerari buruzko azterketa egokia egin baita, lankidetzaren eta elkartasunaren arloan esku-hartzeko ildoak dagokienez emakumeek eta gizonen duten egoerari buruzko informazioa modu berezian bilduta.

Agentziak bidalitako inaktuaren txostenean aurkeztutako egoerari buruzko azterketari esker, genero-desberdintasunetara eta, beraz, desberdintasun horiek oinarritzen dituzten egiturazko kausetara hurbil gaitezke, eta horiek, oro har, honako epigrafe edo eremu hauetan laburbiltzen dira: aurrerapenak, atzerapenak eta erronka berriak; giza eskubideen errespeturik eta babesik eza; emakumeak eta ingurumena; neskatok; emakumeak eta ekonomia; emakumeak eta pobrezia; emakumeen aurkako indarkeria; emakumeen hezkuntza eta gaikuntza; mekanismo instituzionalak emakumeen aurrerabiderako; emakumeak eta osasuna; emakumeak eta gatazka armatuak; boterea eta erabakitze ahalmena eta datu fidagarri eta egokiak.

Era berean, eLankidetzari ematen zaion aurrekontuak generoari dagokionez duen inaktuari buruzko informazioa ematen du. Agentziaren funtsen % 95 erabiltzen da lankidetzarako erakundeei dirulaguntzak emateko eta EAEko herritarrak giza garapen jasangarriaren, justiziaren eta elkartasunaren alde sentsibilizatzeko. Azken 4 urteetan, gutxi gorabehera, ematen diren laguntzen guztizko aurrekontuaren % 29 emakumeak ahalduzera zuzendutako ekimenetara bideratu da, eta emandako funtsen % 17,7, tokiko erakunde bazkideak erakunde feministak diren ekimenetara. Txostenak nabarmentzen ditu, halaber,

azken bi hamarkadetan laguntza horiek arautzen dituzten dekretuetan egindako hobekuntzak: berdintasun-irizpideak txertatzea, bai edukietan, bai formularioetan, bai baremazio-irizpideetan. Era berean, egoerari buruzko azterketan bildu dira Agentziak bultzatutako lan-ildoak eta ekintzak, emakumeak ahalduzera bideratuak daudenak.

Baliabideak eskuratzeko aukerari buruzko apartatuan, euskal lankidetzaz publikoak eskaintzen dituen emakumeentzako eta haien erakundeentzako baliabideen zerrenda bat zerrendatu da, eta horien artean daude prestakuntza-, gaikuntza- eta alfabetatze-prozesu ugari, gidak, eskuliburuak eta abar, eta abar.

Txostenaren arabera, lege-aurreproiektuaren babesean garatutako ekimenek inpaktu positiboa izango dute genero-desberdintasunak gutxitzean, kontuan hartuta arauak, bere helburuen bidez, genero-berdintasunaren alde egiten duela, txertatzen duela printzipiotzat genero-justizia, ikuspegi feminista, ekitatea eta genero-arrazoiengatik eta/edo sexu-orientazioagatik diskriminaziorik eza sustatzea eta, horrez gain, agenda feministan sakontzen duela.

Arauak erregulatzen duen eremuan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izateari dagokionez, txostenak azterlan ugaritako datuak biltzen ditu, bai eta lankidetzaren eta elkartasunaren arloan eskumenak dituzten euskal administrazioari lotutako edo haren mendeko organo, organismo publiko eta entitateen osakerari buruzkoak ere. Datuek sektorearen feminizazioa berresten dute, bai eta bereizketa bertikala ere; izan ere, gizonak erantzukizun eta botere handiagoko postuetan daude. Era berean, txostenak lege berria egiteko gauzatutako hausnarketako eta parte hartzeko prozesua jasotzen du. Hor, generoan eta garapenean adituak diren pertsonen ekarpena eta parte-hartzea egiazta daiteke, bai eta generoaren arloko programetako teknikariarena ere.

Azkenik, eta agentziak aurreko arauan erregulatutako laguntzen aplikazioaren emaitzak aztertu ondoren, nabarmentzekoa da honakoa: arauak inpaktu positiboa izango duela uste da, genero-arau sozialak errepikatzen laguntzen duten egiturak eta mekanismoak aldatzen laguntzen baitu.



Era berean, positiboki baloratzen dira arauaren edukian jasotzen diren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak eta prozedurak, bai eta Agentziak egingo dituen jarduketan eta erregelamendu-garapenen bidez ezartzerakoan helburu berarekin gauzatuko direnak ere, generoaren arabera inpaktuari buruzko txostenaren 3. galdetegian adierazitakoarekin bat etorriz.

Laburbilduz, eta Agentziak egindako azterketaren eta ebaluazioaren ondoren, bat gatoz Lankidetzarako eta Elkartasunerako Legearen aurreproiektuak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko eta/edo ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko egin dezakeen ekarpen positiboari buruz egiten den balorazioarekin; izan ere, haren helburua da pobrezia eta bazterkeria eragiten duten egiturazko kausak eraldatzen laguntzea, bai eta giza garapen jasangarria eta desberdintasunaren aurkako borroka sustatzen laguntzea ere.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 30a